



**Bergarako Udala**  
EUSKARA

**2019**  
**KOLDO ELEIZALDE LEHIAKETAK**  
**XXXIV. edizioa**  
**BERGARAKO UDALA. EUSKARA BATZORDEA**

**2019**  
**KOLDO ELEIZALDE LEHIAKETAK**  
**XXXIV. edizioa**

**OINARRIAK**

**1.- Partehartzaileak.** Lehiaketa honetan Bergaran jaiotakoek edo bizi direnek zein bertan ikasi edo lan egiten dutenek har dezakete parte bakarka zein taldeka.

**2.- Lan orijinalak.** Oinarri hauetako genero bakoitzari buruzko azalpenetan agertzen da aurkeztutako lanek orijinalak izan behar duten edo ez. Orijinalak izan beharreko lanen bat hala ez dela frogatuko balitz, lana aurkeztu duenak 50 euroko isuna ordaindu beharko dio Bergarako Udalari.

**3.- Lanak aurkezteko modua.**

**3.1.- Paperean bakarrik entregatu beharreko lanak** (ipuin idatzia eta komikia derrigorrez eta bertsoa, aukeran) kartazal handi batean bidali edo entregatu beharko dira udaletxean, Bergararren Arretarako Zerbitzuan (B@Z) eta kartazalaren kanpoko aldean honako hauek idatziko dira:

- "Koldo Eleizalde Lehiaketak" izenburua
- Lanaren generoa: ipuina, komikia...
- Kategoria: 1. kategoria, 2. kategoria...

Kartazal handian, berriz, honako hauek sartuko dira:

- a) Lanaren (idazlanaren, komikiaren, bertso-sortaren...) ale bat. Lanean bertan ez da egilearen izenik jarriko; horren ordez goitizen bat jarriko da.
- b) Beste beste txiki bat, kanpoan egilearen izengoitia eramango duena eta barruan orri honetan dagoen "Egilearen datuak" atala, beteta.

**3.2.- Entzunezko edo ikus-entzunezko euskarrian aurkeztu beharreko lanak** (Antzerkia, ipuin-kontaketa eta txiste edo umorezko pasadizoa derrigorrez eta bertsoa, aukeran).

Genero bakoitzari buruzko azalpenetan agertzen da lanak nola aurkeztu behar diren.

**4.- Lanak aurkezteko epea eta sari-ematea.** Lanak entregatzeko epea maiatzaren 3ra artekoa izango da.

Sariak, berriz, ekainean emango dira Seminarixoko aretoan, eguerdiko 12etan.

**5.- Partehartzea saritzea.** Parte-hartzaile guztien artean euskarazko aldizkariaren harpidetzak zozkatuko dira.

**6.- Jabetza-eskubideak eta lanak berreskuratzea.** Aurkeztutako lanak Bergarako Udalaren eskuetan geldituko dira eta Udalak argitaratu ahal izango ditu.

Lehiaketara aurkezteak adierazten du aurreko paragrafoan aipatutako lanen eskubideak Udalari ematen zaizkiola eta, beraz, parte-hartzaileek ez dute lanok argitaratzeagatik sariaz aparteko beste ordainik izango.

Saritutako lanen egileek argitaratu ahal izango dute beren lana beste argitalpen batzuetan ere baina bertan adierazi beharko dute Bergarako Udalak antolatutako Koldo Eleizalde lehiaketan saritua izan dela.

**7.- Epaimahaia.** Epaimahaia Bergarako Udaleko Euskara batzordeak aukeratutako pertsonen osatuko dute.

**8.- Gutxieneko maila.** Epaimahaiaren iritziz, talderen batean aurkeztutako lanek, gutxieneko mailarik ez balute, sariak beste taldeetako gehituko litzaizkieke, edota hurrengo lehiaketarako gorde.

**9.- Ikusentzunezko artxiboak erabiltzeko baimena.** Ikus-entzunezko generoetako lan sarituak (eta baita besteak ere, egileak ados izanez gero) argitaratu egingo dira [www.bergarakoeuskara.eus](http://www.bergarakoeuskara.eus) webgunean. Horretarako, ulertuko da lanaren bidaltzaileak baduela bertan agertzen diren pertsonen baimena.

Edozein kasutan ere, lanean adinez txikiak agertzen badira, horien guraso edo tutoreek sinatutako baimen idatzia aurkeztu beharko da. Baimen hori eman ahal izango du ikastetxeak lehendik gurasoengandik lortua badu. Baimena emateko formularioa webgunean eskuratu ahal izango da.

#### EGILEAREN DATUAK

Generoa (ipuina, bertsoa...):.....Kategoria.....  
 Egilearen izengoitia:.....  
 Lanaren izenburua:.....  
 Egilearen izen-abizenak:.....  
 Jaioteguna:.....  
 Helbidea:.....Telefonoa:.....  
 Ikastetxea:..... Emaila:.....

Orri honetako datu pertsonalak Bergarako Udalak behar bezala baimendutako fitxategietan sartuko ditu. Datu horiek udal kudeaketarako erabiliko dira bakarrik, baina beste administrazio publikoei edo hirugarrenei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoan, aurreikusitako kasuetan.

Interesdunek datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango dute ondorengo helbidera zuzenduta: Bergarako Udala.- San Martín Agirre plaza, 1.- 20.570 Bergara.

#### **IPUIN IDATZIA (Kategoria guztiak), POESIA (4. eta 5. kategoriak)**

Gaia: librea.

Lanek orijinalak eta inoiz saritu eta argitaratu gabeak izan beharko dute.

Bost talde izango dira jaioturtearen arabera. Ipuin idatzia kategoria guztietan aurkeztu ahal izango da eta poesia 4. eta 5. kategorian. Lanen luzera eta sariak hauek izango dira:

| Kategoria | Jaioturtea        | Luzera        | 1. saria                                                                                   | 2. saria      | 3. saria      |
|-----------|-------------------|---------------|--------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|---------------|
| 1         | 2011-12           | 1-2 orrialde  | Ez da, berez, 1. , 2. eta 3. saririk bereiziko. Oparigaiz osatutako hiru sari emango dira. |               |               |
| 2         | 2009-10           | 1-2 orrialde  | Ez da, berez, 1. , 2. eta 3. saririk bereiziko. Oparigaiz osatutako hiru sari emango dira. |               |               |
| 3         | 2007-08           | 1-2 orrialde  | Ez da, berez, 1. , 2. eta 3. saririk bereiziko. Oparigaiz osatutako hiru sari emango dira. |               |               |
| 4         | 2004-2005-2006    | 2-5 orrialde  | 100 €ko bonoa                                                                              | 70 €ko bonoa  | 50 €ko bonoa  |
| 5         | 2003 edo aurretik | 3-10 orrialde | 250 €ko bonoa                                                                              | 200 €ko bonoa | 150 €ko bonoa |

Laugarren eta bosgarren taldeko lanak makinaz idatzita aurkeztu beharko dira tarte bikoitzez. Egile bakoitzak nahi adina lan aurkeztu ahal izango ditu.

Laugarren eta bosgarren kategorietan bereiz saritu ahal izango dira ipuin idatzia eta poesia. Horretarako kategoria bakoitzeko parte-hartzaile kopurua eta lanen kalitatea hartuko da aintzat. Kasu horretan, sariak ere moldatu eta behar izanez gero bikoiztu ahal izango dira.

#### **BERTSO EDO KOPLAK**

**Azalpena:** Bertsoztat hartzen dugu hemen gutxienez 4 oin dituen eta koplaztat gutxienez 2 dituen.

Gaia, neurria eta doinua libre izango dira hiru kategorietan.

Lanek orijinalak eta inoiz saritu eta argitaratu gabeak izan beharko dute.

Hiru talde izango dira jaioturtearen arabera eta bertso-kopurua eta sariak hauek izango dira:

| Kategoria | Jaioturtea          | Gutxieneko luzera      | 1. saria                                                                            | 2. saria     |
|-----------|---------------------|------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------|--------------|
| 1         | 2005ean edo ondoren | 2 bertso edo 4 koplak  | Ez da, berez, 1. eta 2. saririk bereiziko. Oparigaiz osatutako bi sari emango dira. |              |
| 2         | 2001-2002-2003-2004 | 3 bertso edo 6 koplak  | 80 €ko bonoa                                                                        | 50 €ko bonoa |
| 3         | 2000 edo aurretik   | 6 bertso edo 10 koplak | 150 €ko bonoa                                                                       | 80 €ko bonoa |

Bertso edo koplak bi eratara aurkeztu ahal izango dira:

- Kantatuta, entzutezko artxibo digitalean, MP3 formatuan, [www.bergarakoeuskara.eus](http://www.bergarakoeuskara.eus) webgunean horretarako gertatutako formularioa erabiliaz. Formularioaren helbide zehatza: <http://www.bergarakoeuskara.eus/koldo-eleizalde-lehiaketan-parte-hartzeko-orria>.
- Idatziz, paperean, oinarri hauen 3.1. puntuan adierazten den moduan.

Egile bakoitzak nahi adina lan aurkeztu ahal izango ditu.

### **KOMIKIA.**

Gaia: librea.

Lanek orijinalak eta inoiz saritu eta argitaratu gabeak izan beharko dute.

Hiru talde izango dira jaioturtearen arabera eta sariak hauek izango dira:

| Kategoria | Jaioturtea        | 1. saria                                                                            | 2. saria     |
|-----------|-------------------|-------------------------------------------------------------------------------------|--------------|
| 1         | 2007-08-09        | Ez da, berez, 1. eta 2. saririk bereiziko. Oparigaiz osatutako bi sari emango dira. |              |
| 2         | 2004-2005-2006    | 80 €ko bonoa                                                                        | 50 €ko bonoa |
| 3         | 2003 edo aurretik | 140 €ko bonoa                                                                       | 80 €ko bonoa |

**Aurkeztu beharreko lana.** Aurkeztuko den lanaren egitura eta tamaina librea izango da baina gutxieneko tamaina 29 x 10 cm-ko komiki tira izango da. Horretaz aparte, aukera ematen da aplikazio informatikoz sortutako komikiak aurkezteko eta kategoria bakoitzeko parte-hartzaile kopuruaren eta lanen kalitatearen arabera, bereiz saritu ahal izango dira eskuz egindako komikiak eta ordenagailuz moldatutakoak.

Egile bakoitzak nahi adina lan aurkeztu ahal izango ditu.

Lehiaketaren helburu nagusietako bat komikien bidez ahozko berbeta lantzea da; beraz, ez da onartuko komiki muturik eta epaimahaiak lanak baloratzeko, bereziki baloratuko du komikietako testuen egokitasun eta adierazkortasuna.

### **INTERPRETAZIOA ETA KONTAKETA: IPUIN-KONTAKETA, ANTZERKIA, UMOREZKO PASADIZO EDO TXISTEAK**

Gaia: librea.

Iraupena: gutxienez, minutu bateko iraupena izan beharko du kontaketak. Egile bakoitzak nahi adina lan aurkeztu ahal izango ditu.

Lau multzo izango dira parte-hartzaileen jaioturtearen arabera:

| Kategoria | Jaioturtea          | 1. saria                                                                            | 2. saria      |
|-----------|---------------------|-------------------------------------------------------------------------------------|---------------|
| 1         | 2013an edo ondoren  | Ez da, berez, 1. eta 2. saririk bereiziko. Oparigaiz osatutako bi sari emango dira. |               |
| 2         | 2007-2012           | Ez da, berez, 1. eta 2. saririk bereiziko. Oparigaiz osatutako bi sari emango dira. |               |
| 3         | 2003-2006           | 200 €ko bonoa                                                                       | 150 €ko bonoa |
| 4         | 2002an edo aurretik | 300 €ko bonoa                                                                       | 200 €ko bonoa |

Kategoria bakoitzeko parte-hartzaile kopuruaren eta lanen kalitatearen arabera, bereiz saritu ahal izango dira azpi generoak: ipuin-kontaketa, antzerkia eta txiste edo pasadizoak. Kasu horretan, sariok ere moldatu ahal izango dira.

**Lanak aurkezteko modua:** Lanak entzunezko edo ikus-entzunezko artxibo digitalean (formatuak: MP3, FLV, MP4 edo AVI) grabatuta aurkeztu beharko dira. Artxibook ahal den neurrian (Webgunea 250 Mb arteko artxiboak igotzeko prestatuta dago), sare bidez aurkeztea gomendatzen da [www.bergarakoeuskara.eus](http://www.bergarakoeuskara.eus) webgunean horretarako gertatutako formularioa erabiliaz. Formularioaren helbide zehatza: <http://www.bergarakoeuskara.eus/koldo-eleizalde-lehiaketan-parte-hartzeko-orria>.

Artxiboa handia balitz eta webgunera jasotzeko grabazioaren kalitatea txikitu beharra balego edo bestelako arazorik balitz, CD edo DVDan aurkeztuko dira. Edonola ere, **lanaren eta egilearen datuak webguneko formularioan sartu beharko dira**.

Lehiaketaren helburua ahozketasuna lantzea da eta epaimahaiak lanak baloratzerakoan, kontaera edo antzezteko modua (ahots modulazioak, isiluneak, intonazioa, gorputz espresioa...) hartuko ditu, batez ere, kontuan. Arrazoi horregatik, ez da, antzerki muturik onartuko eta ez da baloratuko kontakizuna orijinala izatea, eta baliagarriak izango dira lehendik egindako edozein grabazioen birkontatzeak edo parodiak ere.

Edozein kasutan orijinala ez baldin bada, adierazi egin beharko da lanaren izenburua eta egilea, baldin badu.